



5. Eskolako berriak
SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Oñati alkarregaz ezaguketako

5. Eskolako berriak

MUINA

- Helburuak
 - Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako Erdi Aroan zer hedabide/komunikazio bide zeuden aztertuko dute eta honez gain, gaur egunera arte zer nolako bilakaera izan den gure herrian. Hau eginda, hedabide/komunikazio bide bat sortu beharko dute eta euren eguneroko berriz josi. Amaieran ondorioztatuko dute gure ondorengoek gure berri izan dezaten, zer garrantzitsua den dena jasota egotea.
 - Espezifikoak
 - Oñatin gaur egun zer hedabide/komunikazio bide dauden ezagutzea.
 - Hausnartzeko gaitasuna lantzea
 - Taldean eztabaidatzen jakitea eta ardurak errespetatzen jakitea
 - Erabakiak hartzeko gaitasuna lantzea
 - Itzaleko lanen garrantziaz jabetzea eta protagonismoak berarekin dakarren egoarekin aurrez-aurre jokatu eta kudeatzen ahalegintzea.
 - Oñatin Erdi-aroan gutunak eta abar nolakoak ziren ezagutzea.
 - Erritmoa sentitu eta jarraitzea
- Azken xedea edo ekoizpena
 - Azken xedea izango da hedabide bat sortu eta hau euren berriz jostea.
- Ikaste taldea
 - Lehenengo ziklorako pentsatuta dagoen sekuentzia da, printzipioz.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

HASIERA FASEA

- 1. jarduera → Oñatiko Erdi Aroko “hedabideez”/komunikazio bideez dakiguna.

**Sekuentzia hau egin aurretik, suposatuko da badutela inprentaren berri. Hala ez bada, labur azal diezaiekegu zer izan zen, non sortua, nork...*

-Hemen helburua izango da Erdi Aroko komunikatzeko moduen inguruko aurrezagutzak piztu eta usteak konpartitzea. Bi atal izango ditu: Liburuak eta inprenta, batetik eta bestetik gutunak.

-Hasierako proposamena da irakaslea liburu batekin etorriko da gelara -Oñatiar batena izaten bada, ezin hobeto!-. Eta hasiko da esaten: *“Aizue... gaur liburua irakurtzen ari nintzela esan dut... Ufa! Zenbat lan hau dena idaztea! Eskerrak orain makinak eta ordenagailuak dauden... (Oñatin badago Gertu enpresa, hain justu ere lan horiek egiten dituen). Baina imajinatzen duzue lan hau aspaldi? Erdi Aroan? Inprenta hor agertu zen... baina lehenago nola egingo zuten lan? Dena eskuz?*

Adibidez liburu honen 300 kopia daude. Imajinatu lehen hainbeste kopia egin beharko bagenitu... Nola egingo zuten?

Beraz zer ondorio izan zuen inprentak?

-Honen bidez saiatuko gara ikasleek uler dezaten antzinako asmakizun batek nola gaur egungo munduan eta zehazki gaur egungo Oñatin zer bilakaera izan duen. Izan ere, hedabide batzuk badaude gure herrian herriko berriei buruz hitz egiten dutenak, eta guztiak inprentaren sorreratik eratorritakoak erabiltzen dituzte gu guztiok informatzeko.

-Ah! Eta liburuez aparte, nola komunikatzen ziren euren artean? Orain telefonoa daukagu, whatsapp-a, posta elektronikoa, sare sozialak... eta lehen? Lehen gutunak zituzten. Zer idatziko zuten gutun haietan?

-Bigarren atalean esango diegu gutunak zirela komunikatzeko biderik erabilienak. Segur aski erantzungo dute garai hartan gutunak erabiliko zirela maitasuna adierazteko, galdetzeko ea zer modu zeuden eta norbere bizitzaren anekdotak kontatzeko...

Ba esango diegu ezetz. Garai hartako Oñatiko gutun guztiak zirela gauza administratiboan inguruan hitz egiteko. Beste modu batera esanda Errege/Erreginen gauzak idazteko eta baimenak eta horrelako gauza garrantzitsuak komunikatzeko. Ez besterik.

-Hau ikusteko gutun bat edo beste erakutsi ahal izango diegu eta ausartzen bagara pixka bat irakurri. Baliabide zein eranskinetan izango duzue horretarako informazioa.

- 2. jarduera → Oñatiko gaurko hedabideak

-Hurrengo jardueran helburua izango da Oñatiko hedabideak izan daitezkeenak bilatu eta aurkeztea, baina herri mailako hedapena dutenak. Eta denok batera, hedabide hauen inguruan ahalik eta informazio gehien ateratzea.

-Bertan haurrei eskatuko diegu zerrendatzeko zein hedabide ezagutzen dituzten baten bat ezagutzen badute. Garrantzitsuenak Kontzejupetik aldizkaria eta Irratia dira. Goienera astekaria ere aipa genezake baina jakinda Arrasaten egiten dela; hala ere, honek Oñatiren inguruan hitz egiten du.

-Galdetuko diegu ea badakiten non dauden Kontzejupetik eta Oñati Irratia. Ez baldin badakite pistak ematen hasiko gara: *“Zer auzotan dago? Zer dendaren ondoan? Zer parkeren ondoan?...”* Azkenean denok eraikin batera helduko gara: Olarako dorrera. Han daude kokatuta Kontzejupetik eta Oñati Irratia. *(Eranskinetan oso azaleko eta oinarrizko informazioa izango duzue. Sakondu nahi izanez gero esteka batzuk ere egongo dira).*

-Galderak egiten jarrai dezakegu, adibidez ea zeintzuk diren bertako langileak, ea ikusi duten inoiz Kontzejupetik edota ea entzun duten sekula Oñati irratia... Ea euren etxeetan entzun eta irakurtzen diren... Etxekoei ere eska diezaiekete informazioa gero klasean partekatzeke.

- 3. jarduera → Hedabide gustukoena

-Aurreko jardueretan agian norbaitek esan du gustatuko litzaiokeela halako komunikabide baten parte hartzea. Hau horrela baldin bada indarra emango diogu momentu horretan eta jarduera honetan berriro ekarriko dugu hori gogora. Izan ere, helburua da komunikabide bat sortzea guztiok batera eta horretarako gogoia piztu behar da.

-Beraz, haurrei esango diegu ea prest egongo liratekeen horrelako batean parte hartzeko. Eginkizuna, gainera, izan daiteke eskolako berriak edo gelako berriak batzea eta ikastetxean zehar zabaltzea. Izan daiteke aldizkari edo irrati forman. Orduan egiteko konpromisoa hartzen badugu, berau betetzeko eskaera egingo diegu.

-Orduan lehen erabakia hartzeko garaia heldu da eta izan daiteke gatazka-iturri. Hau, beti bezala, aukera zoragarria da haurrentzat, ikasteko. Galdetuko diegu ea aldizkari bat edo irrati programa bat egin nahi duten.

-Behin hori erabakita hurrengo jarduerara pasa gaitzke.

**OHARRA: Noski, hemen euren neurriko “aldizkari” edo “irrati programa” bat esperoko da. Esate baterako, aldizkarian 8 orrialde eta berri bakoitzeko esaldi bat eta marrazki edo argazki bat. Irrati programa ere 3-4 minutukoa. Zerbait egingarria eta erreala.*

- 4. jarduera → Lanpostuak aztertzen

**Honako sekuentzian irratia ren aukera hartuko da eta berau nola egin daitezkeen azalduko da.*

-Jarduera honetako helburua izango da egon daitezkeen lanak zerrendatu eta horiek egiteko jendea zerrendatzea. Beraz, asanbladan jarriko gara guztiok eta bi lan mota egongo direla esango diegu: Itzaleko lana eta argiko lana. Esatariak, adibidez, argiko lana egingo du. Jendeak bera entzungo du zuzenean. Baina esatariak ezingo luke esango duena esan itzaleko laneko langileek ez balute euren lana egin.

-Normalean halako egoeretan (protagonismoaren auziarekin lotutakoetan) denok gustura geratzeko moduko zerbait egiten da, kasu honetan, guztiak esatariaren paperean jarriko genituzke. Baina esanguratasunetik gutxi izan lezake egoera horrek eta planoak bereizten dituen egoera horri (proposatzen denari) honi baino zuku gehiago atera dakiokela uste dugu.

-Orduan, egon daitezkeen lanak bitan bereiztuko ditugu: Berri-egileak eta programako kideak. Berri-egileetan da jende gehien beharko den lana. Berri bakoitzeko 3ko taldeak egitea proposatzen da. Eta programako kideen taldean 4: bi esatari eta bi teknikari. Taldekatze mota gelakideen ezaugarriek markatuko dute. Bakoitzean komeni dena... Heterogeneoak elkarri laguntzeko, homogeneoak dagokien mailan aurreratzeko... Helburua zein den.

-Eta behin hau jakinda taldeak zehaztuko dira arbelean apuntatuz eta hauek aintzat hartuko dira proiektuaren amaierara arte.

GARAPEN FASEA

- 5. Jarduera → Asko baina bakarra

-Hurrengo jarduera antzerki musikalean egiten den jolas bat da. Sinplea irudiz, baina sakona izatez. Helburua da ulertzea talde txiki asko garela baina momentu batean batu eta bat izango garela. Eta garena bezala funtzionatu behar dugula.

-Jolasaren azalpena konplikatuagoa da jolasa bera baino. Oso erreza da eta behin funtzionamendua ulertuta ez dago arazorik. Jolasak erritmoarekin du zerikusia. Abesti hori 8 konpasetako zatitan egongo da idatzia. Konpas bakoitzak 4 pultsu edo zati izango ditu eta beraz, arreta jarri beharko dugu konpas berri bakoitzeko lehenengo zatian.

-Guztiak oinez hasiko dira espazioan zehar eta abestia jarriko dugu. Abestia jarri eta orduan lehenengo konpasa hasiko da. Momentu horretan guztiok BAT! esango dugu keinu batekin batera.

-Hurrengo konpasean, BI! (eta beste keinu bat). HIRU! (eta beste keinu bat)...

-Orduan, helburua izango da ZORTZI!garrenera heltzean denok erdian batzea eta Zortzigarren pultso horretan eskuak erdira eraman eta indarrez airean errebotatzea gorantz.

-Eta berriro bakoitza nahi duen lekura joango da oinez musika eta erritmoa sentituz BAT-etik hasita. Eta zortzigarrenean erdian batu eta indarrez eskuekin errebote hori egin (kiroletan bezala jolasean hasi aurretik) eta berriro segi... Abestia amaitu arte.

- 6. Jarduera → Jolasaren inguruan hausnartzen

-Aurreko jolasaren ostean, bakoitzak bizi izandakoa aztertu eta plazaratuko du jarduera honetan egingo dugun asanbladan. Gidaritza irakasleak izango du eta hainbat gauza galdetuko ditu:

Nola sentitu zarete jolasean? Sentitu duzue erritmoa? Konturatu zarete bakoitza "bere lanean" ibili dela eta zortzigarrenean denok batera egon zaretela? Sentitu duzue taldea? Uste duzue antzerako zerbait sentitu behar dugula gure irratiko programa prestatzen dugun bitartean?

-Ariketa honi dagokion garrantzia eman behar diogu, honen bidez garrantziz josiko dugulako bakoitzak egin beharko duen lana. Eta nahiz eta txikia izan, itzalekoa izan, garrantzitsua izango dela. Hori gabe ez dela BATASUNA egongo.

EKOIZPEN FASEA

- 7. jarduera → Taldeka jarri eta lanari ekin!

-Jarduera honetan bi alor bereiziko ditugu berriro: berri-egileak eta programako kideak.

-Berri egileek bertatik-bertara bilatu behar izango dute berria. Tarte emango diegu eskolatik paseoak emateko, geletara sartzeko -betiere trabarik egin gabe-, eta bertako jendeari galderak egiteko. Zerbait interesgarria aurkitzen duten momentuan horri buruz galderak egingo dizkiote protagonistari informazio gehiago jasotzeko asmoz. Hau dena, bide batez, eurek izango duten koadernotxo edo orri mutuan jaso beharko dute.

Horretarako denborarik ez badute buruan har dezatela informazioa eta gelan informazioa ondo idazteko behar beste denbora utziko zaie.

Komeni da bakoitzak bere mailan egitea ariketa. Batzuk esaldi bakar bat idatzita nahikoa izango dute eta maila hobea dutenek 3 esaldi-edo. Bestelako "idazki"-rik ere onartu beharko litzateke oraindik oinarrizko mailara ere heldu ez bada inor. Hark ere berea azaltzeko lizentzia izango du, noski.

-Programako kideek irratsaioa ongi joan dadin, materiala lortu beharko dute, irratia entzun eta horrelakoak. Printzipioz ordenagailu batekin egin ahal izango litzateke **audacity** bezalako programa batekin. Hori erabiltzen ikasten trebatu ahal dira, adibidez.

Esatariek ere praktikatu beharko dute euren irakurketa eta abar. Horretarako premia inork baldin badu, esatariaren papera oso ondo etorriko zaio, orduan. Gero hauek arduratu beharko dira berri-egile guztiek eurei berria ematen, garaiz bukatzeko eurekin egon beharko dute, orduan. Koordinatzaile papera ere hartu behar izango dute, beraz.

-Hau guztia egiteko saio bat edo beste utzi beharko diegu. Agian berri bat baino gehiago egin dezakete, baina amaierarako euren gustukoena aukeratu beharko dute berri-egileetako talde bakoitzak. Hortaz, talde bakoitzak berri bat izango du.

**OHARRA: Programari izena jartzea ere oso garrantzitsua litzateke. Programako kideek egin dezatela hori.*

- 8. jarduera → Proiektua koordinatzen

-Aurreko jarduera egiten den bitartean asanbladaren bat egitea gomendatzen da. Alde batetik elkarren lanaren berri izateko eta bestetik bakoitzaren sentimendu eta emozioei tarte bat eskaintzeko. Zer ari den gertatzen eta abar.

-Denak izango du garrantzia baina protagonismoaren auzian inork arazorik izango balu honi emango genioke indarra. Helburu espezifikoean berau aipatzen da eta. Orduan gogora ekarriko dugu erritmoaren jolasa eta hortik ateratako ondorioak birgogoratuko ditugu taldean.

-Baina hala ez bada eta beste edozer konpartitu nahi bada, horretarako foroa izango da hori. Eta horri dagokionez taldeak eta norberak zer egin dezakeen aztertuko da. Garrantzitsua izango da hau etorkizuneko egoeretan honen beharra sentituko baitute.

- 9. Jarduera → Aurkezpena prestatu, egin eta iritziak jaso.

-Berri guztiak prest daudenean, programako kideek programa grabatuko dute besteen aurrean saioa aurkeztuz, berriak irakurriz eta agurra emanez. (Ikastetxeak megafonia izango balu demasa litzateke zuzenean egitea programa).

-Grabatu ostean ikastetxe osora zabalduko da eta guztiok entzungo dute programa hori. Hori bai, entzuleetako batzuei feedbacka eskatuko zaie, galdetuaz ea zer iruditu zaien saioa. Feedbacka eman behar dutela, saioa ematerakoan esango zaie; idatziz egin dezatela balorazio labur-labur bat.

-Honi arreta eskainiko zaio hurrengo jarduerako oinarrietako bat izango baita.

- 10. Jarduera → Bidearen ebaluaketa

-Proiektuarekin amaitzeko, asanbladan batuko gara guztiok eta esango diegu hurrei lehenengo eta behin esateko nola sentitu diren proiektuan zehar. Zer ikasi duten, zer izan den berria eurentzat... Era berean galdetuko diegu nola sentitu izan diren eta nola sentitzen diren orain (lehenago protagonismoaren auzian, inork arazorik izan badu, batez ere).

-Honen ostean, feedbackak irakurriko ditugu denok batera. Bakoitzari bere garrantzia emango diegu eta ikasiko dugu hortik ondo egindakoak zein izan diren eta hobetzekoak zeintzuk diren.

-Ondorioztatuko dugu ere beste pertsonen begiradak lagundu diezagukela gure burua hobetzen eta kritikak modu negatiboan ikusi ordez, oso modu eraikitzailean ikusten.

-Eta hau dena eta gero erdian ordenagailua jarriko dugu, grabatzen jarri eta galdetuko dugu: *Zer eman digu, orduan, irratia? Zer ikasi digu berarekin?* Eta bakoitzak esan beharko du hitz edo esaldi bat. Eta grabazio hori izango da taldeko ebaluazioa.


HEZURDURA

- **Hasiera fasea** → Ikasleen aurrezagutzak aktibatu eta pixkanaka gaien murgilduko dira input eta jarduera diferenteen bitartez.
 - 1. jarduera → Oñatiko Erdi Aroko “hedabideez”/komunikazio bidez dakiguna.
 - Helburua: Erdi Aroko hedabideei buruzko aurrezagutzak identifikatu eta konpartitzea.
 - Baliabideak: Irakasleak egingo duen galdera sorta eta gutuna.
 - Ebaluazioa: Behaketa.
 - 2. jarduera → Oñatiko gaurko hedabideak
 - Helburua: Oñatin gaur egun zein hedabide dauden indentifikatzea eta hauen inguruko informazioa konpartitzea, bilatzea...
 - Baliabideak: Bilaketak egiteko ordenagailu bat, adibidez, eta proiektorea.
 - Ebaluazioa: Behaketa
 - 3. jarduera → Hedabide gustukoena
 - Helburua: Proiektuko azken xedea zehaztea taldetan gustokoen duten hedabide bat sortzearen ideia barneratzea.
 - Baliabideak: -
 - Ebaluazioa: Behaketa
- **Garapen fasea** → Azken xedea modu egokian bete ahal izateko egin beharreko lanketen proposamena agertzen da fase honetan.
 - 4. jarduera → Lanpostuak aztertzen
 - Helburua: Hedabide horretan zer nolako lanak egongo diren identifikatu eta bakoitza batean kokatzea eta erabakiak hartzeko gaitasuna lantzea.
 - Baliabideak: Papera eta margoak.
 - Ebaluazioa: Behaketa eta egindakoa.
 - 5. Jarduera → Asko baina bakarra
 - Helburua: Talde diferentek izanagatik bakarra bezala funtzionatu behar dutela ulertu eta sentitzea.
 - Baliabideak: Abesti bat.
 - Ebaluazioa: Behaketa.
 - 6. Jarduera → Jolasaren inguruan hausnartzen

- Helburua: Aurreko jolasa aitzakiatzat hartuta hausnarketara bultzatzea eta ekoizpen faserako ondorioak ateratzea.
 - Baliabideak: Paper mutua beharko balitz.
 - Ebaluazioa: Behaketa eta ondorioak.
- **Ekoizpen fasea** → Landu den guztiarekin lehen fasean finkatutako azken xede hori lortzea edo lortzen saiatzea da fase honen helburua.
 - 7. jarduera → Taldeka jarri eta lanari ekin!
 - Helburua: Taldeka jarri eta informazioa biltzen hastea eta denon parte-hartzea lortzea.
 - Baliabideak: Ordenagailuak, paperak, koadernoak, arkatza eta margoak...
 - Ebaluazioa: Biltzen duten informazioa.
 - 8. jarduera → Proiektua koordinatzen
 - Helburua: Bakoitzak proiektuarekiko bere emozioak identifikatu eta gelan aurkeztea.
 - Baliabideak: Laguntza izango balitz, papera eta margoak.
 - Ebaluazioa: Behaketa.
 - 9. Jarduera → Aurkezpena prestatu, egin eta iritziak jaso.
 - Helburua: Taldean aurkezpena prestatzea, egitea eta jaso dutenek haurrei feedbacka ematea eta hori asanbladan aztertzea.
 - Baliabideak: Irratia bada, megafonia, mp3 irakurtzen duen gailu bat, telebista baldin bada kamara bat eta proiektorea, aldizkaria baldin bada inprimagailua...
 - Ebaluazioa: Sortutako aurkezpena eta jasotako feedbacka.
 - 10. Jarduera → Bidearen ebaluaketa
 - Helburua: Egindako bidearen hausnarketa egitea eta ondorioak ateratzea, feedbackak kontuan izanda.
 - Baliabideak: Feedbackak, paper handi bat edo arbela, errotulagailuak eta klariona.
 - Ebaluazioa: Behaketa eta azken margoa.

ERANSKINAK (FITXAK eta JAKINGARRIAK)

-GUTUNA (Transkripzioa eta azalpen txikia)



IZENBURUA: Valladolideko kantzeliari karta erreal betearazlea. Bertan Barrundia, Azparrena eta Ganboako anaitasunek eta Araiako batzarrak, Oñatiko kondearen

kontrako epaiketa jasotzen da honek zituen lurren gaineko botere, titulu eta zerga jasotzeko eskubidearen gainean.

<http://www.euskomedia.org/PDFAnIt/fuentes/docs50.pdf> 35. dokumentua

-IRRATIA INFO

<https://www.oñati.eus/eu/udal-zerbitzuak/udal-komunikabideak/kontzejupetik-aldizkaria/hemeroteka/kontzejupetik-aldizkaria-maiatza-261-zbkia>